1. VOLTAIRE (1761): *BASATI BAT ETA BATXILER BAT, SOLASEAN*

LEHENENGO SOLASALDIA

Egun batean, Cayenne-ko gobernari batek eraman zuen Frantziara Gineako basati bat, berezko sen onez jaioa bera, eta frantsesez ongi samar hitz egiten zuena. Parisko batxiler batek izan zuen harekin elkarrizketa hau izateko ohorea.

BATXILERRA: Basati jauna, ikusiak izango dituzu, dudarik gabe, bakar-bakarrik bizi diren zure kideak; izan ere, esaten denez, hangoa da benetako giza bizitza, gizartea ez baita galbide artifiziala baino.

BASATIA: Ez dut inoiz horrelako jenderik ikusi. Gizakia elkarbizitzarako jaioa iruditzen zait, beste animalia asko bezalaxe: espezie bakoitzak bere senari jarraitzen dio. Gu denok gizartean bizi gara.

BATXILERRA: Nola? Gizartean? Orduan, ba al dituzue harresiz itxitako hiri ederrak, gortea duten erregeak, ikuskizunak, komentuak, unibertsitateak, bibliotekak eta kabaretak?

BASATIA: Ez; alabaina, ez al dut, bada, nik entzun zuen kontinentean badituzuela arabiarrak eta eszitak, inoiz horrelakorik izan gabe nazio ederrak osatzen dituztenak? Bada, gu horiexen modura bizi gara. Auzolanean aritzen gara. Lurralde beroa da gurea, eta ez dugu behar handirik: erraz lortzen ditugu elikagaiak; ezkondu egiten gara, umeak egiten ditugu, horiek hezi eta, ondoren, hil egiten gara. Zuenean bezalaxe, zeremonia batzuk desberdinak izan arren.

BATXILERRA: Baina, jauna, ez al zara, bada, basati bat?

BASATIA: Ez dakit zer adierazi nahi duzun hitz horrekin.

BATXILERRA: Egia esanda, neuk ere ez; irudikatu egin behar dut. Guk, umore txarreko eta bakarzaleari esaten diogu basati.

BASATIA: Jadanik esan dizut elkarrekin bizi garela, familian.

BATXILERRA: Halaber, oihanetan gordetzen diren otzandu gabeko piztiei basapizti esaten diegu; hortik *basati* izendatzea basoan bizi den gizakiari.

BASATIA: Ni, zuek bezala, ehiza egitera joaten naiz basora.

BATXILERRA: Pentsatzen al duzu inoiz?

BASATIA: Ideiaren bat edo beste izaten da beti.

BATXILERRA: Jakin nahi nuke zein diren ideia horiek. Zer pentsatzen duzu gizakiari buruz?

BASATIA: Nik pentsatzen dut hanka biko animalia dela, arrazoitzeko ahalmena duela, hitz eta barre egitekoa ere bai, eta bere eskuez baliatzen dela tximinoa baino askoz ere hobeki. Gizaki mota franko ikusi dut: zu bezalako zuriak, ni bezalako gorriak, beltzak, Cayenneko gobernariaren etxekoak bezalakoak. Zuek bizarra duzue; guk, ez; beltzek artilea dute, eta zuk eta nik, ileak. Esaten denez, zuen iparraldean ile guztiak horiak dira; gure Amerikan, denak beltzak dira. Eta gehiagorik ez dakit.

BATXILERRA: Baina, zeure arima, jauna, zeure arima? Zer ideia duzu horretaz? Nondik datorkizu arima? Zer da? Zer egiten du? Zertaz arduratzen da? Nora doa?

BASATIA: Ez dakit ezer, ez dut inoiz ikusi.

BATXILERRA: Izan ere, uste al duzu piztiak makinak direla?

BASATIA: Sentimendua eta oroimena duten makina antolatuak iruditzen zaizkit.

BATXILERRA: Eta zuk zeuk, basati jaun horrek, zer uste duzu daukazula horiek baino hoberik?

BASATIA: Oroimen askoz ere hobea, ideia askoz ere gehiago eta, esan dizudan moduan, hizkuntza bat, piztien mintzaira baino askoz ere soinu gehiagoz osatua, eta esku trebeagoak, eta arrazoi onek eragiten didaten barre egiteko ahalmena.

BATXILERRA: Eta, mesedez, nola duzu hori guztia? Eta zer izaera du zure espirituak? Nola animatzen du arimak zure gorputza? Pentsatzen duzu denbora guztian? Zure nahimena askea al da?

BASATIA: Hori da galdera sorta! Zuk galdetzen didazu nolatan jabetu naizen Jainkoak gizakiari emandakoaz; berdin litzateke nolatan jaio naizen galdetuko bazenit. Baina gizona jaio naizenez, nahitaezkoa da nik gizonari dagozkion gauzak edukitzea, arbolak enborra, sustraiak eta hostoak dituen bezala. Nahi duzu nik jakitea zer izaera duen nire espirituak; nik ez diot, ordea, neure buruari horrelakorik eman, ezin dut jakin; nola animatzen duen nire arimak nire gorputza; horretan ere ez naiz jakitunagoa. Iruditzen zait ikusi egin behar dela zure erlojuaren lehenengo erresortea nola markatzen duen ordua jakiteko. Galdetzen didazu ea pentsatzen

dudan denbora guztian; ez, batzuetan, sasi ideiak izaten ditut, gauzak urrutitik eta nahasirik ikusiko banitu bezala; beste batzuetan, ideia sendoagoak izaten ditut, gauza bat gertutik eta ongi ikusita eta inolako ideiarik egin gabe geratzen naizen bezala, begiak itxita ezer ikusten ez dudan bezala. Ondoren, galdetzen didazu ea nire nahimena askea den. Ez dizut batere ulertzen; horiek dira zuk ezagutzen dituzun gauzak, dudarik gabe: egidazu horiek guztiak argitzeko mesedea.

BATXILERRA: O! Bai, noski, materia horiek guztiak ikasi ditut nik, eta hitz egin niezazuke hilabete oso batez etenik gabe, eta ez zenuke ezer ere ulertuko. Esadazu, mesedez, ezagutzen al dituzu ongia eta gaizkia, zuzena eta zuzengabea? Ba al dakizu zein den gobernurik onena, kulturarik onena, jendearen eskubideak, zuzenbidea, zuzenbide zibila, eliza-zuzenbidea? Nola zuten izena Amerikan bizi ziren lehenengo gizon-emakumeek? Ba al dakizu zergatik egiten duen euria itsasoan, eta zergatik ez daukazun batere bizarrik?

BASATIA: Egia esanda, jauna, abusatu egiten duzu animaliek baino oroimen hobea dudala aitortu izanaz, kostatu egiten baitzait gogoan hartzea egiten dizkidazun galdera horiek guztiak. Ongiaz eta gaizkiaz hitz egiten duzu, zuzenaz eta zuzengabeaz: nire iritziz, inori kalte egin gabe plazera ematen digun guztia ona eta zuzena da; guri plazera eman gabe gizakiei kalte egiten diena gaitzesgarria da; eta guri plazera eman eta besteei kalte egiten diena mementoan ona da guretzat, baina oso arriskutsua, eta oso txarra besteentzat.

BATXILERRA: Eta horrelako maximekin bizi zarete gizartean?

BASATIA: Bai, gure ahaide eta auzokoekin. Ahalegin eta atsekabe handirik gabe, ehun urtera iristen gara; ehun eta hogeira ere bai, kasu batzuetan. Ondoren, gure gorpuek ongarritu egiten dute elikagarri izan duten lurra.

BATXILERRA: Buru ona duzula iruditzen zait; irauli egin nahi dizut. Afal dezagun elkarrekin; ondoren metodoz filosofatzen jarraituko dugu

BIGARREN SOLASALDIA

BASATIA: Irentsi ditut niretzat eginak iruditzen ez zaizkidan janariak, sabel onekoa naizen arren; goserik ez nuenean janarazi didazu, eta edanarazi, egarririk gabe. Hankak ez ditut afal aurretik bezain sendo, burua pisutsuago sentitzen dut, nire ideiak, berriz, ez dira horren argiak.

Ez dut inoiz ezagutu honelako makalaldirik nire herrialdean. Hemen, zenbat eta gehiago sartu gorputzean, orduan eta galduago norbera. Esadazu, mesedez, zein den zoritxar honen kausa.

BATXILERRA: Esan egingo dizut. Zure hankei dagokienez, ideiarik ez daukat, baina medikuek badakite, eta galde diezaiekezu haiei. Zure buruari dagokionez, ederki asko dakit zer den. Entzun. Arima, tokirik ez duenez, guruin pinealean kokatzen da, edo gorputz kailukarean, buruaren erdian. Sabeletik gora doazen espiritu bizidunak arimara igotzen dira, baina ezin dute hura ukitu, haiek materia direlako eta arima, berriz, ez. Hortaz, elkarren artean eragin-trukerik ez dutenez, arimak horien inpresioa jasotzen du; eta arima sinplea denez eta, horrenbestez, inolako aldaketarik jasan ezin duenez, aldaketak pisua eragin eta gizentzen du, gehiegi jaten denean; horregatik egiten dute lo gizon handi askok jan ondoren.

BASATIA: Esaten didazun guztia burutsua eta sakona iruditzen zait, baina azal iezadazu nik ulertzeko moduan, mesedez.

BATXILERRA: Gai garrantzi horretaz esan daitekeen guztia esan dizut, baina pixka bat gehiago azalduko dizut. Goazen, bada, pixkanaka-pixkanaka: ba al dakizu mundu hau mundu posibleetan onena dela?

BASATIA: Nola? Izaki Infinituari ezinezko al zaio ikusten dugun hau baino ezer hoberik egitea?

BATXILERRA: Seguruenik, eta ikusten dugun hau onena da. Egia da gizakiek lapurtu eta lepoa mozten diotela elkarri, baina betiere ekitatearen eta goxotasunaren laudorioa eginez; garai batean hil egin zituzten zuen amerikar horietako dozena bat miloi, baina betiere gainerakoak arrazoibidera eramateko. Kalkulatzaile batek egiaztatu du zuretzat ezezagun den Troiako gerratik zuretzat ezagun den Akadiako gerrara arte, bostehun eta berrogeita hamabost miloi seiehun berrogeita hamar mila gizon hil egin direla gerra ordenatuetan, erraustutako hirietako haurrak eta emakumeak kontatu gabe; baina betiere ongizate publikoaren mesede. Lau edo bost mila gaixotasun ankerrek, gizakiei erasaten dietenek, erakutsi dute osasunaren prezioa; eta lurra estaltzen duten krimenek agerian uzten dute gizaki errukiorren merezimendua, horien artekoa ni neu naizelarik. Ikusten duzunez, hori da mundurik onena, niretzat behintzat.

BASATIA: Baina, jauna, pixkanaka-pixkanaka joateko, hamaika kontu aipatzen dituzu batera.

BATXILERRA: Horrela aritzen gara solas-molaz. Eta, esadazu orain, nork egin ditu legeak zure herrialdean?

BASATIA: Onura publikoak.

BATXILERRA: Hitz horrek asko esaten du; guk ez dugu ezer indartsuagorik ezagutzen. Nola ulertzen duzu, mesedez?

BASATIA: Nik ulertzen dut kokondoak eta artadiak zituztenek debekatu egin zietela besteei horiek ukitzea, eta horrelakorik ez zutenek nahitaez lan egin behar izan dutela horien zati bat jateko eskubidea izateko. Gure herrialdean eta zurean ikusitako guztiak erakusten dit hori besterik ez dela *legeen espiritua*.

BATXILERRA: Eta emakumeak, basati jauna, emakumeak?

BASATIA: Hara! Emakumeak? Asko gustatzen zaizkit ederrak eta goxoak direnean. Askoz ere hobeak dira kokondoak baino: ez dugu nahi beste inork ukitzea. Ez dago niri emaztea, ezta haurra, kentzeko eskubiderik. Esaten dutenez, badira hori onartzen duten herriak; haien nahia hori bada, egin dezatela: nork bere ondasunarekin nahi duena egiten du.

BATXILERRA: Baina oinordekoak, ondasun-banaketak, ahaideak?

BASATIA: Ongi dago oinordetza. Ezin dut enetzat gorde soroa ni lurperatu eta gero. Nire semeari uzten diot. Bi baldin baditut, banatu egingo dute elkarren artean. Ikusi dut zuenean, leku askotan, zuen legeak uzten diola dena premuari, eta ezer ere ez ondorengoei. Interesak ezarri du lege bitxi hori: edo premuek ezarri dute, edo gurasoek nahi izan dute premuek agintzea.

BATXILERRA: Zein dira, zure ustez, legerik onenak?

BASATIA: Nire antzekoak diren gizaki guztien interesa errespetatzen duten horiek.

BATXILERRA: Eta inon aurki daiteke horrelakorik?

BASATIA: Inon ez, entzun dudanez.

BATXILERRA: Esan behar didazu nondik iritsi diren zuenera gizakiak. Zure ustez, nork jendeztatu zuen Amerika?.

BASATIA: Guk sinesten dugu Jainkoak jendeztatu duela.

BATXILERRA: Hori ez da erantzutea. Nik galdetzen dizut zein herrialdetatik iritsi ziren zuenera lehenengo gizakiak.

BASATIA: Gure lehenengo arbolak iritsi ziren herrialdetik. Barregarria iruditzen zait nola zuek, Europako jaun horiek, pentsatzen duzuen guk ezin dugula ezer eduki zuek gabe; guk berdin-berdin pentsa dezakegu gu garela zuen arbasoak, zuek gureak zaretela imajinatzen duzuen bezalaxe.

BATXILERRA: Horra hor basati egoskorra!

BASATIA: Horra hor batxiler kalakaria!

BATXILERRA: Ederki, bada! Basati jauna, azkeneko hitz erdi bat: Ginean uste al duzue zuen iritzi berdinekoa ez diren pertsonak hil egin behar direla?

BASATIA: Bai, jateko baldin badira.

BATXILERRA: Adarra jotzen ari zara. Eta *Konstituzioa*z, zer pentsatzen duzu?

BASATIA: Agur.

2. VOLTAIRE (1775): *CHESTERFIELD KONDEAREN BELARRIAK ETA GOULDMAN KAPILAUA*

1. ATALA

Ai! Patuak gobernatzen ditu mundu honetako gauza guztiak. Nik, arrazoi osoz, neure zoriaren arabera epaitzen dut.

Chesterfield jaunak izugarri estimatzen ninduen, eta hitzeman zidan nire hobe beharrez ariko zela. Bazuen bere esku lanpostu on bat eskaintzeko. Nire probintziatik abiatu nintzen Londres aldera eta jaun haren aurrera aurkeztu. Hitzemandakoa gogorarazi nion, eta hark, bostekoa eman ondoren, benetan aurpegi txarra neukala esan zidan. Nik erantzun nion nire zorigaitzik handiena pobrezia zela. Eta hark ni sendatzea nahi zuela esan zidan, eta Guildhall-etik gertu bizi zen Sidrac jaunarentzako eskutitz bat luzatu zidan, berehala.

Zalantza izpirik ez nuen Sidrac jauna izango zela nire apezgorako baliabideen emailea. Salto batean joan nintzen harengana. Sidrac jauna Chesterfielden zirujaua zen, eta buruan sartu zitzaion aztertu behar ninduela, eta harria baldin banuen, berak pozik landuko zidala.

Esan behar da jaunak uste zuela nik xixkuan nuela gaitz handia, eta, oso eskuzabala zenez, bere kontura lantzea nahi zuela. Gorraizea zuen, bere anaiak bezalaxe, baina artean nik ez nekien hori.

Xixkuan zunda ez sartzeko Sidrac jaunarekin borrokan denbora galtzen nuen bitartean, Chesterfielden etxera nire eskaera berarekin aurkeztu ziren berrogeita hamabi lehiakideetatik batek erreklamatu zuen nire apaizgoa, eta eraman egin zuen.

Ni maiteminduta nengoen Fidler andrearekin, eta berarekin ezkondu behar nuen sendatutakoan. Nire lehiakideak kendu zizkidan postua eta emaztegaia.

Kondeak, nire hondamenaz eta bere hutsegiteaz konturatuta, dena konponduko zuela agindu zidan; baina handik bi egunera hil zen.

Sidrac jaunak ikusarazi zidan, argi eta garbi, nire ongilea ez zela minutu bat baino gehiago bizi izango, haren organoen egoera ikusita, eta gorreria danborraren eta kordaren lehortasun handitik zetorkiola erakutsi zidan. Eskaini ere egin zidan neure belarriak gogortzea alkohol etilikoz, erresumako parerik gorrena bilakatzeraino.

Sidrac jauna gizon jakintsua zela ulertu nuen. Natura-zientzietarako zaletasuna piztu zidan. Gainera, ikusten nuen gizon eskuzabala zela: nire harria, behar izanez gero, dohainik landuko zidan, eta gerta zekizkidakeen xixku-lepoko arazo guztietatik libratuko ninduen.

Beraz, haren zuzendaritzapean hasi nintzen natura ikertzen, nire sendabidearen eta emaztegaiaren galeraren kontsolamendurako.

2. ATALA

Natura nire bost zentzumenen, betaurrekoen, mikroskopien laguntzaz asko aztertu ondoren, egun batean honela esan nion Sidrac jaunari:

> – Gutaz trufatu egiten dira; natura izpirik ez dago, dena da artea. Arte eder bati esker egiten dute planeta guztiek aldizkako dantza eguzkiaren inguruan, horrek, bere burua ardatz hartuta, bira egiten duen bitartean. Era berean, beharrezkoa da Londreseko Errege Elkartea bezain jakintsua den baten batek antolatua izatea hau dena, planeta bakoitzaren biraren berbidura izan dadila beti beraren erdirainoko distantziaren erro kubikoaren proportzionala. Eta belagilea izan behar da hori asmatzeko. Gure Tamesisen goraldi eta beheraldiak ere arte sakon eta zail berdintsuaren ondorio iraunkorra iruditzen zaizkit. Animaliak, landareak, mineralak… dena iruditzen zait pisura, neurrira, kantitatera eta mugimendura egokituta dagoela; dena da malgukia, palanka, polea, makina hidraulikoa, kimika-laborategia, belarretik zakurreraino, arkakusotik gizakiraino, hondar aletik gure hodeietaraino. Egia da: artea besterik ez dago, natura kimera bat baino ez da.

SIDRAC: Arrazoi duzu, baina merezimendua ez da zurea; hori bera esan zuen Mantxaz bestaldeko ameslari batek, baina ez zaio kasu handirik egin.

> – Harritzen nauena eta gehien atsegin dudana zera da, arte ulergaitz horren bidez bi makinak sortzen dutela beti hirugarren bat; eta amorru handia dut Fidler andrearekin horrelako bat egin ez dudalako, baina argi dago ezarrita zegoela, betidanik eta betiko, Fidler andreak ni ez naizen beste makina bat erabiliko zuela.

SIDRAC: Esaten ari zaren hori ere —erantzun zidan— esana dago, baita hobeki esana ere: ongi kalkulatzen duzun probabilitate bat da. Bai, eder askoa da bi izakik hirugarren bat sortzea, baina hori ez da horrela izaki guztietan: bi arrosak ez dute musuka hirugarren bat sortzen; bi

harri koskorrek, bi metalek ez dute hirugarrenik sortzen; eta, hala ere, giza industria osoak ez luke metal bat, harri bat, egiten jakingo. Mirari handia, ederra, etengabea da mutil batek eta neska batek ume bat sortzea elkarrekin, urretxindor arrak urretxindor kume bat egitea bere urretxindor emeari, eta ez txinbo eme bati. Bizi erdia eman beharko litzateke haiei imitatzen, eta beste erdia, metodo hori asmatu zuena bedeinkatzen. Sorkuntzan badira hamaika sekretu bitxi. Newtonek esaten du natura berdina dela nonahi: *Natura est ubique sibi consona*. Hori, maitasunari dagokionez, faltsua da: arrainek, narrastiek, txoriek ez dute guk bezala maitasuna egiten; desberdintasun amaigabea dago. Izaki sentibera eta eraginkorren fabrikazioak liluratzen nau. Landareek ere badute berea. Harritu egiten nau lurrera botatako gari ale batetik nola sortzen diren beste ale asko.

A! —esan nion nik, artean ergel hutsa nintzelarik— kontua zera da, gariak hil egin behar duela jaiotzeko, eskolan esaten den bezala.

Sidrac jaunak, seriotasun handiz, errepikatu zidan barrez:

– Hori egia zen eskola garaian, baina nekazari sotilenak ere badaki, gaur egun, hori zentzugabekeria dela.

– A, Sidrac jauna, barkamena eskatzen dizut, baina teologoa izan naiz, eta ohitura zaharrak ez dira kolpe batez aldatzen.

3. ATALA

Goudman apaiz gizagaixoaren eta Sidrac anatomista bikainaren arteko solasaldi horiek izan eta denbora pixka batera, egun batean zirujauak Saint-James parkean aurkitu zuen Goudman pentsakor, ameslari, kalkulu faltsua egin berri duen aljebraria baino aztoratuago.

– Zer duzu? —esan zion Sidracek —; xixkua edo kolona dira zure gaitzaren motibo?

– Ez — esan zuen Goudmanek —; behazunaren mingotsa da. Glocester-eko apezpikua ikusi berri dut pasatzen, harroputz berritsu lotsagabe hori karroza eder batean zihoan. Ni, berriz, oinez nindoan, eta horrek haserrarazi nau. Erresuma honetan apezpikutza eskuratu nahi banu, lepoa jarriko nuke hamar mila baten kontra ez nukeela lortuko, kontuan izanda Ingalaterran hamar mila apaiz garela. Gorra zen Chesterfield jauna hil ondoren, inolako babesik gabe nago. Demagun hamar mila apaiz anglikano horiek bina

babesle dituztela; kasu horretan hogei mila baten kontra izango litzateke ni apezpikutza ez lortzeko. Horrek gogaitu egiten du, horretaz pentsatuz gero. Gogoratu naiz aspaldian proposatu zidatela Indietara joatea, itsasmutil gisa; han aberastuko nintzela agintzen zidaten, baina nik ez nuen nire burua almirante bilakatuta ikusten. Eta ogibide guztiak aztertu ondoren, apaiz geratu naiz ezertan ona izan gabe.

– Utziozu apaiz izateari — esan zion Sidracek —, eta egin zaitez filosofo. Ogibide horrek ez du aberastasunik ez eskatzen ez eskaintzen. Zein da zure errenta?

– Hogeita hamar ginea baino ez, eta nire izeba zaharraren heriotzaren ondoren, berrogeita hamar izango ditut.

– Ea, bada, nire Goudman maitea: hori nahikoa da libre bizitzeko eta pentsatzeko. Hogeita hamar ginea seiehun eta hogeita hamar xiling dira; ia bi xiling eguneko. Philips-ek bat bakarra nahi zuen. Segurtaturiko errenta horrekin esan daiteke pentsatzen den guztia Indietako Konpainiaz, parlamentuaz, gure koloniez, erregeaz, izaki orokorraz, gizakiaz, Jainkoaz, eta hori oso dibertigarria da. Etor zaitez nirekin afaltzera, dirua aurreztuko duzu eta; solasean ariko gara, eta zure pentsatzeko ahalmenak, hitzaren bitartez, nirearekin komunikatzeko aukera izango du, hori baita gizakiek behar beste miresten ez duten gauza zoragarria.

4. ATALA

Goudman doktorearen eta Sidrac anatomistaren arteko solasaldia, arimaz eta bestez.

GOUDMAN: Baina, Sidrac maite horrek, zergatik esaten duzu beti nire *pentsatzeko ahalmena*? Zergatik ez nire arima, labur-labur? Azkarrago esango duzu, eta nik berdin ulertuko dizut.

SIDRAC: Neronek ulertuko ez nukeelako. Nik sentitzen dut, eta badakit Jainkoak eman didala pentsatzeko eta hitz egiteko ahalmena, baina ez dakit arima izenekorik eman didan, ez baitut sentitzen.

GOUDMAN: Egia esanda, horretaz pentsatzen dudanean ikusten dut nik ere ez dakidala, eta denbora luzean egon naizela harro nekielako ustean. Konturatu naiz ekialdeko herrietan *arima* bizia adierazten zuen hitz bat zela. Haien modura, latinoentzat, hasiera batean, *anima* animaliaren bizia zen. Grekoen kasuan, arima arnasketa zen, putza. Latinoek *putz* itzuli zuten

spiritus, eta hortik nazio moderno ia guztietara zabaldu zen *espiritua*. Baina putz hori, espiritu hori, inork inoiz ikusi ez duenez, inork ukitu eta ikusi ezin dezakeen izaki bat bilakatu da. Esan ohi da gure gorputzean kokaturik dagoela, han lekurik hartu gabe; gure organoak astintzen dituela horiek ukitu gabe. Zer ez ote da esan? Gure diskurtso guztiak, nire ustez, gaitz-ulertuetan oinarritu dira. Ikusten dut Locke jakintsu hori ederki asko konturatu dela hizkuntza guztietako gaitz-ulertu horiek nola eraman duten kaosera giza arrazoimena. Arimari buruz mintzatzeari ez dio atal bat bera ere eskaini metafisikari buruz inoiz idatzi den liburu zentzudun bakarrean. Eta, ausaz, testuinguru zehatz batzuetan hitz hori aipatzen badu, gure entelegua adierazteko baino ez da. Izan ere, jende guztiak sentitzen du entelegua daukala, horrek jasotzen dituela ideiak, horrek lotu eta banandu egiten dituela; baina inork ez du sentitzen bere baitan mugimendua, sentipenak eta ideiak ematen dizkion bestelako izakirik dagoenik. Egia esateko, barregarria da ulertzen ez diren hitzak esatea, ezagutzeko aukera izpirik ematen ez duten izakiak onartzea.

SIDRAC: Mendeetan zehar eztabaidatu den gauza baten inguruan, horra nola iritsi garen bat etortzera.

GOUDMAN: Harrituta nauka gu bat etortzeak.

SIDRAC: Ez da harrigarria, fede onez bilatzen baitugu egia. Eskolako bankuetan eserita bagina, Rabelais-en pertsonaien modura argumentatuko genuke. Denbora luzean Ingalaterra ezjakintasun ilunpean bilduta egon den mendeetan bizi bagina, gu biotariko batek errearazi egin zezakeen, beharbada, bestea. Baina arrazoizko mende batean bizi gara; erraz aurkitzen dugu egiantza duen hori, eta esaten ausartzen gara.

GOUDMAN: Bai, baina beldur naiz egia hori ez ote den huskeria bat. Matematikan Apolonio eta Arkimides harritzeko moduko mirariak egin ditugu, horiek eskolako haurrak bilatzerainokoak; baina metafisikan, zer aurkitu dugu? Geure ezjakintasuna.

SIDRAC: Eta hori ez da ezer? Izaki Gorenak sentimena eta pentsamena eman dizkizu, zure oinei ibiltzeko ahalmena, zure eskuei hamaika obra egiteko ahalmena, zure erraiei digestioa egiteko ahalmena, zure bihotzari odola arterietara eramateko ahalmena bezalaxe. Dena jaso dugu harengandik, guk ezin dugu ezer eman, eta ez dugu inoiz jakingo unibertsoko Maisuak nola egiten duen gu bideratzeko. Nik, nire aldetik, eskerrak ematen dizkiot lehen printzipio horietaz ez dudala zertan jakinik erakutsi didalako. Beti bilatu izan da nola eragiten duen arimak gorputzean. Aurrena jakin beharko da arimarik ote dugun. Edo Jainkoak eman digu dohain

hori, edo baliokidea den zerbaiten berri eman digu. Edozein modutan, gu haren eskuetan gaude. Hura da gure maisua, hori da dakidan guztia.

GOUDMAN: Baina, gutxienez, esadazu zure susmoa. Burmuinak disekatu dituzu, enbrioiak eta fetuak ikusi dituzu; aurkitu al duzu horietan arimaren arrastorik?

SIDRAC: Izpirik ere ez, eta ezin izan dut inoiz ulertu nola litekeen betiereko eta materiarik gabeko izaki bat bederatzi hilabetean alferrik bizitzea mintz atsitu baten barruan, gernu-gorotz artean. Zail egin zait ulertzea nola zitekeen ustezko arima sinple hori bere gorputzaren aurretikoa izatea; izan ere, mendeetan, zertarako balioko zuen giza arima izan baino lehen? Eta, gainera, nola imajinatu izaki sinple bat, izaki metafisiko bat, eternitate batean zain egotea materian, minutu batzuetan, bizia pizteko? Zer bilakatzen da izaki ezezagun hori suspertu behar duen fetua amaren sabelean hiltzen bada? Are barregarriagoa iruditzen zait Jainkoak arima bat sortzea gizon bat eta emakume bat oheratzen diren unean. Arnegaraztekoa iruditu zait Jainkoa adulterio bat, intzestu bat noiz gauzatuko zain egotea, eta zitalkeria horiek saritzea haien aldeko arimak sortuz. Eta okerrago oraindik esaten didatenean Jainkoak ezerezetik sortzen dituela arima hilezkor horiek betiereko sufrimenduan atsekabe sinesgaitzak jasan ditzaten. Nola! Izaki sinpleak, erretzeko ezer ez duten izakiak erre! Nola egin genezake guk ahots bat, pasatu den haize bolada bat erretzeko? Sikiera soinu hori, haize hori, materiazkoak ziren pasatzeko unean, baina espiritu huts bat, ideia bat, zalantza bat? Galdu egiten naiz. Edozein aldetara begira jarrita, iluntasuna, kontraesana, ezintasuna, burugabekeria, ameskeria, tentelkeria, kimerak, absurdoa, lelokeria, berritsukeria baino ez dut aurkitzen. Baina gustura egoten naiz esaten dudanean: Jainkoa da maisua. Ezin konta ahala izar batetik bestera ibilarazten dituenak, argia egin zuenak guri sentimenduak eta ideiak emateko nahikoa gaitasuna du, guk *arima* izeneko atomo arrotz eta txiki baten beharrik izan gabe.

Jainkoak, dudarik gabe, animalia guztiei eman dizkie sentimendua, oroimena eta trebetasuna. Bizia eman die, eta bizia ematea arima ematea bezain ederra da. Nahikoa onartuta dago animaliak bizi egiten direla; frogatuta dago sentimenduak dituztela, horretarako organoak badituzte eta. Beraz, hori guztia arimarik gabe baldin badute, gu zergatik tematzen gara arima bat izaten?

GOUDMAN: Banitateagatik, beharbada. Uste osoan nago indioilar batek hitz egiterik balu arima bat izateaz harrotuko litzatekeela, eta bere arima gandorrean duela esango lukeela. Ni prest nago onartzeko, zurekin batera, Jainkoak jatun, edale, ibiltari, loti, sentibera, pentsalaria, grinatsu, harro eta dohakabe egin gaituela, bere sekretuaren hitz erdi bat ere esan gabe.

Horretaz, guk ez dakigu aipatu indioilar horrek baino gehiago. Eta, guk jakin gabe nola, jaio, bizi eta hil egiten garela esan duenak egia biribila esan du.

Probidentziaren txotxongilo izendatu gaituenak ongi definitu gaituela uste dut. Izan ere, gu existitzeko mugimendu franko behar dira. Eta guk ez dugu mugimendua egin, legeak ezartzea ez baitagokigu guri. Norbaitek, argia sortu ondoren, eguzkitik gure begietara mugiarazi du argi hori, eta zazpi minutuan iritsarazi. Mugimendua da nire bost zentzumenak astintzen dituena; bost zentzumenei esker ditut ideiak; beraz, mugimenduaren Sortzailea da ideiak eman dizkidana. Eta nola eman dizkidan esaten didanean, eskerrik beroenak emango dizkiot. Jadanik asko eskertzen diot urte batzuetan munduaren espektakulu zoragarria ikusteko, Epiktetok zioen moduan, eman didan aukera. Egia da are zoriontsuago egin nazakeela, lanpostu on bat lortu eta Fidler andereñoa nire maitale eginez gero; baina tira, nagoen bezala, errentako nire seiehun eta hogeita hamar xiling horiekin ere, hari eskerrak eman beharrean nago.

SIDRAC: Jainkoak lanpostu on bat eman eta zoriontsuago egin zaitzakeela diozu. Badago proposizio hori onartuko ez lizukeen jenderik. Ea, bada: ez al zara gogoratzen zu zeu zinela patuaz kexatzen zena? Hori ezin zaio onartu kontraesanetan sartu nahi duen gizonari. Ez al zara konturatzen apaizgoa lortu ondoren eskatzen duzun emakumea izan bazenu zu izango zinela Fidler andereñoari umea egingo ziona, eta ez zure aurkaria? Munduratuko zuen haurra izan zitekeen marinela, almirante bilakatu, Ganges-eko bokalean itsas gudu bat irabazi eta, amaieran, Mogol Handia tronutik kendu. Horrek bakarrik unibertsoaren konstituzioa aldatuko zuen. Bestelako mundu bat, zeharo desberdina, beharko zen zure aurkaria apaizgoa ez lortzeko, Fidler andrearekin ez ezkontzeko, zu seiehun eta hogeita hamar xilingeko errenta kobratzen ez geratzeko, zure izebaren heriotzaren zain zauden bitartean. Dena dago lotua, eta Jainkoak ez du, nire lagun Goudmanengatik, betiereko katea etengo.

GOUDMAN: Nik ez nion arrazoibide horri jarraitzen patuaz hitz egiten nuenean, baina tira, hori horrela bada, Jainkoa ere ni bezain esklaboa da?

SIDRAC: Hura bere borondatearen, bere jakinduriaren, egin dituen legeen eta bere nahitaezkotasunaren esklaboa da. Hark ezin ditu horiek urratu, ezin delako izan ahula, aldakorra, gu bezain alditsua; Izaki betierekoa ezin da nora haize hara aise ibili.

GOUDMAN: Sidrac jauna, horrek guztiak eraman lezake, zuzen-zuzen, erlijiogabetasunera. Izan ere, Jainkoak ezin badu mundu honetako kontuetan ezer aldatu, zertarako kantatu haren laudorioak, zertarako egin hari otoitz?

SIDRAC: Eta nork esan dizu Jainkoari otoitz egiteko eta laudorioak kantatzeko? Benetan kontuan hartzekoak dira zure laudorio eta eskakizunak! Laudatzen da hutsaltzat jotzen den gizona; erregu egiten zaio ahultzat hartu eta iritziz aldatuko dela espero denean. Konpli dezagun Jainkoaren aldera dugun eginbeharra: gurtu dezagun, izan gaitezen zuzenak; horra benetako laudorioak, gure benetako otoitzak.

GOUDMAN: Sidrac jauna, eremu zabala besarkatu dugu. Izan ere, Fidler andrea kontatu gabe, aztertu dugu ea arimarik dugun, ea jainkorik dagoen, ea hura alda daitekeen, ea gu bi bizitzarako destinatuta gauden, ea… Ikasketa sakonak dira horiek, eta, beharbada, nik ez nuen inoiz horrelakoetan pentsatuko apaizgoa lortu banu. Sakondu egin behar dut beharrezko gauza sublime horietan, zereginik ez dut eta.

SIDRAC: Ongi da. Bihar, Grou doktorea etorriko da nire etxera afaltzera. Oso mediku jantzia da. Munduaren itzulia egina du Banks eta Solander jaunekin batera. Dudarik gabe, ezagutu behar ditu Jainkoa eta arima, egia eta gezurra, Covent-Gardenetik inoiz aldendu ez direnek baino hobeki. Gainera, Grou doktorea, bere gaztaroan, Europa ia osoan zehar ibilia da: Errusiako bost edo sei iraultzaren lekukoa izan da; askotan bisitatu du prefet turkiarra den Bonneval kondea, Konstantinoplan musulman peto-petoa bilakatu dena, dakigun bezala; harremanak izan ditu Irlandako Mac-Carthy apaiz papistarekin, Mahomaren ohorez bere prepuzioa moztu zuenarekin, eta baita gure Ramsay eskoziar presbiteroarekin ere, gauza bera egin eta Errusian zerbitzatu ondoren Finlandian, suediarren kontrako gudu batean, bizia galdu zuenarekin; eta R.P. Malagrida-rekin hitz egin du, Ama Birjinak Santa Anaren sabelean zegoen bitartean egin zuen guztia berari errebelatu ziolako Lisboan erre egin duten horrekin. Antzemango diozu horrenbeste ikusi duen Grou jauna bezalako gizon batek munduko metafisikorik handiena izan behar duela. Beraz, bihar nire etxean afaltzera.

GOUDMAN: Baita etzi ere, Sidrac jauna, afari bat baino gehiago behar baita ikasteko.

5. ATALA

Hurrengo egunean, hiru pentsalariek elkarrekin afaldu zuten. Eta afari ostean zertxobait alaiago zeudenez, afaltzen duten filosofoen ohituraren arabera entretenitu ziren animalien generoa hunkitzen duten zorigaitz guztiez, lelokeria guztiez, izugarrikeria guztiez solasean, lurralde australetik hasita ipar poloraino, Limatik Méaco-raino. Narda-segida askotariko hori oso dibertigarria izaten da. Plazer hori ez dute ez burges etxekoiek, ez parrokiako bikarioek,

zeren eta, beren kanpandegia baino ezagutzen ez dutenez, enparaua Londreseko Exchange Alley edo Pariseko Rue de la Hachette bezala egina dagoela pentsatzen baitute.

GROU: Adierazi nahi dut mundu honetan dagoen dibertsitatea zenbatezina den arren, ikusi ditudan gizon guztiak ikusita ere, zirela beltzak azalez, zirela beltzak ilajez, zirela brontze kolorekoak, zirela gorriak, zirela nabarrak, zirela zuri izendatuak, denek dituztela bi hanka, bi begi, eta buru bat bizkar gainean, nahiz eta San Agustinek, bere hogeita hamazazpigarren sermoian, azefaloak (alegia, bururik gabeak), baita begi bakarra duten monokuloak eta hanka bakarreko monopedoak ere ikusi dituela baieztatu. Aitortu beharrean nago ugariak direla antropofagoak, eta izan, jende guztia izan dela antropofagoa. Askotan galdetu didate ea Zeelanda Berriko biztanleak, gaur egun barbaroetan barbaroenak direnak, bataiatuta ote zeuden. Nik erantzuten dut ez dakidala ezer horretaz, litekeena zela. Izan ere, judutarrak, horiek baino barbaroagoak zirenak, bi bataio zituzten, justizia-bataioa eta egoitza-bataioa.

GOUDMAN: Nik ezagutu ditut, benetan, eta horretaz eztabaida handiak izan ditut bataioa guk asmatu dugula sinesten dutenekin. Ez, jaunak, guk ez dugu ezer asmatu, guk sailkatu baino ez dugu egiten. Baina esadazu, Grou jauna, mesedez, bidean ezagutu dituzun laurogei edo ehun erlijioetatik, zein iruditu zaizu atseginena, Zeelandakoena edo hotentoteena?

GROU: Tahiti uhartekoa, konparaziorik gabe. Bi hemisferioak zeharkatu ditut, eta ez dut ezer ikusi Tahiti eta hango erregina jainkotiarra bezalakorik. Tahitin bizi baita natura. Handik kanpo, maskarak baino ez ditut ikusi; ergelak engainatzen dituzten maltzurrak baino ez; autoritatea lortzeko besteen dirua eta zigorrik gabe dirua lortzeko autoritatea lapurtzen duten kalakariak baino ez; zure eperrak jateko amarauna saltzen dizutenak baino ez; haiek existitzen diren bitartean zuk palankari eragiten jarraitzeko inor geratzen ez denerako aberastasunak eta plazerak saltzen dizkizutenak baino ez. Arraioa! Oso bestelakoa da Tahiti uhartean. Uharte hori Zeelanda edo Kafreen lurraldea baino askoz zibilizatuagoa da, baita, atrebentziaz, esan dezaket geure Ingalaterra hau baino areago; izan ere, naturak lagundu dio Tahitiri lur emankorrez, baliabide ezin hobea den ogi-arbola emanez, hegoaldeko itsasoetako zenbait uhartetan bakarrik sortzen dena. Bestalde, Tahitik baditu hegazti, lekale eta fruitu ugari. Horrelako lurralde batean ez dago lagun hurkoa jateko beharrik. Baina badago naturalagoa, gozoagoa eta unibertsalagoa den behar bat, Tahitiko erlijioak publikoan betetzeko agintzen duena; erlijio-zeremonia guztietan errespetagarriena dena, dudarik gabe. Ni horren lekuko izan nintzen, baita gure itsasontziko eskifaia guztia ere. Ez dira, ez, misiolari-kontakizunak, aita jesuita agurgarrien *Onbiderako gutun harrigarriak* bezalakoetan aurkitzen direnetakoak. Jean Hawkesworth doktoreak amaitu berri du hegoaldeko hemisferioan egin ditugun aurkikuntzen

argitalpena. Ni izan naiz polo antartikoan naturari behatzen, bere denbora eta dirua eskaini dituen Banks gazte estimagarriaren ondoan; Dawkins eta Wood jaunak Palmira eta Balbek-etik bueltan zetozen, han arte-monumenturik zaharrenetan indusketak egin ondoren; eta Hamilton jaunak irakatsi die napolitar harrituei beren Vesubio mendiaren natura-historia. Laburbilduz, neronek ikusia da, Banks, Solander, Cook eta beste hamaika gizonekin batera, ondoren kontatuko dizudana.

Obeira printzesa, Tahitiko uharteko erregina…

Orduantxe ekarri ziguten kafea, eta hori hartutakoan, Grou jaunak honela ekin zion kontakizunari:

6. ATALA

Obeira printzesak, Ingalaterrako erregina baten moduko jentiltasunez gu opariz bete ondoren, behin, gure goizaldeko zerbitzu anglikanoan izateko jakin-mina izan zuen. Ahalik eta handitasunik handienaz egin genuen elizkizuna. Ondoren, printzesak gonbidatu gintuen bere zerbitzura, afalostean. 1769ko maiatzaren 14a zen. Bertaratu ginen eta, zirkuluerdian jarrita, isiltasun beneragarri osoz, bi sexuetako mila pertsonaz inguraturik aurkitu genuen Obeira. Neska gazte xarmant bat, oihal galant batez jantzita, aldare-oholtza baten gainean zegoen etzanda. Obeira erreginak agindu zion hogei urte inguruko mutil eder bati eskaintza egiteko. Otoitz moduko zerbait egin ondoren, mutila aldarera igo zen. Bi sakrifikatzaileak zeuden erdi biluzik. Erreginak, aire arranditsu batez, erakutsi zion neska gazteari eskaintza egiteko modurik egokiena. Tahitiko biztanleak hain zeuden erne eta adeitsu, ezen gure marinel bat bera ere ez baitzen ausartu irribarre lizun batez zeremonia hartan traba egitera. Horra nik ikusitakoa, diotsuet; horra gure eskifaia osoak ikusitakoa. Orain, zeuei dagokizue ondorioak ateratzea.

GOUDMAN: Festa sakratu horrek ez nau harritzen. Uste osoan nago gizakiek inoiz ospatu duten lehenengo festa dela, eta ez dakit zergatik ez egin Jainkoari otoitz izaki berri bat bere antzera egiterakoan, gure gorputzaren mantenu den janaria hartu aurretik egiten dugun bezalaxe. Izaki arrazoidun bat egitea ekintzarik nobleena eta santuena da. Horrela uste zuten lehenengo indiarrek, sorkuntza-sinboloa zen Lingam gurtzen zutenean; antzinako egiptoarrek, Faloa prozesioan eramaten zutenean; grekoek, Priapori tenpluak eskaintzen zizkiotenean. Auzokoen imitatzaile zarpaila den judutarren naziotxo zitala aipatzerik badago, beraren liburuetan esana dago herri horrek Priapo gurtzen zuela, eta Asa errege judutarraren ama

haren pitia izan zela. Izanak izan, pentsatzekoa da ez dagoela herririk lizunkeriazko kultu bat inoiz ezarri ez duenik. Galdukeria horretan ere irristatzen da denboraren poderioz; baina instituzioa beti izaten da errugabea eta purua. Garai bateko gure otoruntzetan, neska-mutilek apalki ematen zizkioten musuak elkarri; hitzordu eta desleialtasunaren degenerazioa geroago etorri da. Jainkoak nahiko ahal du Obeira erreginaren aurrean, guztiz erraz eta ohorez, nik Fidler andrearekin batera eskaintza egitea!

SIDRAC: (Goudman eta Grou jaunek etengabe hitz egiten zutelako ordura arte isilik, bere mutualditik atera zen) Entzun berri dudan horrek guztiak liluratzen nau. Obeira erregina hegoaldeko hemisferioko lehen erregina iruditzen zait, ez naiz ausartzen bi hemisferioetako erregina izendatzen. Baina, horrenbeste aintza eta zorion artean, bada izutu egiten nauen artikulu bat; Goudman jaunak esan dizu hitz bat horri buruz, baina zuk ez diozu erantzun. Egia al da, Grou jauna, zuen aurretik zorioneko uharte horretan lehorreratu zen Wallis kapitainak eraman zituela bertara lur osoan diren bi izurrite beldurgarrienak, bi baztanga horiek?

GROU: Arraioa! Frantsesek akusatzen gaituzte gu, eta guk akusatzen ditugu frantsesak. Bougainville jaunak esan du ingeles madarikatu horiek kutsatu diotela sifilisa Obeira erreginari, eta Cook jaunak, berriz, Bougainville jaunarengandik berarengandik jaso duela esaten du. Izanak izan, sifilisa arte ederren antzekoa da: inork ez daki nork asmatu zuen, baina, denboraren poderioz, Europa, Asia, Afrika eta Amerika zeharkatu ditu.

SIDRAC: Urteak dira zirujau-lanak egiten ditudala, eta aitortu behar dut sifilis horri zor diodala nire ondasunen zatirik handiena; hala ere, neurri berean gorrotatzen dut. Sidrac andreak kutsatu zidan eztei-gauean bertan, baina emakumea bere ohoreari dagokionez delikatuegia denez, Londreseko egunkari guztietan argitaratu zuen egia zela gaitz higuingarriaz kutsaturik zegoela, baina berak amaren sabeletik jaso zuela eta hori familia-ohitura zaharra zela. Zertan ari ote da *natura* izeneko hori pentsatzen, biziaren iturrietan pozoi hori botatzen duenean? Esan izan da, eta nik errepikatzen dut, hori kontraesanik handiena eta gorrotagarriena dela. Nola, bestela!

Gizakia Jainkoaren irudira egina omen da, *Finxit in effigiem moderantum cuncta deorum*, eta irudi horren hazi-hodietan mina, infekzioa eta heriotza jarri! Zer bihurtuko da Rochester jaunaren bertso eder hau: «Jainkoa gurraraziko du maitasunak ateoen lurraldean»?

GOUDMAN: Arraioa! Menturaz eskertu beharko diot Probidentziari Fidler andereño maitearekin ezkondu ez izana! Batek daki zer gerta zitekeen! Mundu honetan ez dago inoiz

ezertaz seguru egoterik. Edonola ere, Sidrac jauna, nire puxikari dagokionez, zure laguntza guztia agindu didazu.

SIDRAC: Zure esanetara nauzu, baina ideia gaizto horiek uxatu behar dira (Goudman, horrela hitz eginez, bazirudien bere etorkizuna aurreikusten ari zela).

7. ATALA

Hurrengo egunean, hiru filosofoek heldu zioten galdera handiari: Zein da gizakien ekintza guztien lehen kausa? Goudmanek, bere onura eta bere maitearen galera bihotzean zituela denbora guztian, esan zuen den guztiaren printzipioak maitasuna eta handinahikeria zirela. Grouk, lurralde gehiago ikusita zegoenak, dirua zela esan zuen. Eta Sidrac anatomista handiak ziurtatu zuen komuna zela. Beste bi solaskideak harriturik zeuden, eta hona hemen nola frogatu zuen Sidrac jakintsuak bere tesia:

SIDRAC: Beti ikusi izan dut mundu honetako zeregin guztiak pertsonaia nagusi baten iritziaren mende daudela, hori errege izan, lehen ministro izan, lehen ofizial izan; zeren, iritzi hori eta borondate hori, espiritu bizidunak nola irazten diren zerebelo aldera, eta hortik bizkar-muinera, halako ondorio zuzenak baitira. Espiritu bizidun horiek odol-zirkulazioaren mende daude; odol hori, kiloaren mende; kilo hori mesenterio-sarean sortzen da; mesenterio hori, zuntz xehe batzuen bidez dago lotuta hesteei; heste horiek, zilegi bekit esatea, gorotzez beterik daude; hor, nahiz eta hiru tunika lodiz jantzita egon heste bakoitza, galbahea bezain zulaturik dago, dena baitago egunean naturan, eta ez dago bostehunetik gora poro ez dituen hondar alerik ñimiñoenik. Behar bezain estu eta gogor balira, mila orratz pasa litezke kanoi-bala batean zehar. Eta zer gertatzen zaio, bada, lehor dabilen gizonari? Beraren gorotzaren elementurik finenak, delikatuenak, kiloarekin nahasten dira Azelliuseko zainetan, hortik porta zainera eta Pecquet gordailura iristeko; gero, subklabiara pasatu eta gizonik galantenaren, emakume kaskarinenaren bihotzean sartzen dira. Gorputz osoan zehar dabilen mokordo lehorrezko ihintza da. Ihintz hori dohakabe baten parenkima, zain eta guruinetara sartzen bada, haren umore txarra basakeria bilakatzen da; haren begietako zuriak su iluneko kolorea hartzen du; haren ezpainak bata bestearen kontra itsatsita daude; haren aurpegiko koloreak taxu ilunak erakusten ditu; ematen du mehatxua egiten dizula: ez zaitez ingura. Estatuko ministroa baldin bada, ez bururatu gero hari eskabide bat egiterik; berarentzat paper oro premiazko baliabide bat baino ez da, Europako biztanleen antzinako usadio nazkagarri baten

arabera. Informa zaitez ganoraz, haren morroi kutunari galdetuta, ea monsinorea komunetik pasatu den ala ez.

Hori, uste baino askoz ere garrantzitsuagoa da. Idorreriak sortu ditu, batzuetan, oso eszena odoltsuak. Nire aitona, ehun urte zituela hil zenean, Cromwellen botikaria zen. Hark askotan kontatu zidan Cromwellek zortzi egun zeramatzala komunera joan gabe erregearen lepoa mozteko agindu zuenean. Kontinenteko kontuez pixka bat adituak direnek badakite behin baino gehiagotan esan ziotela Griseko dukeari, Arrailduari, Henrike III.a ez molestatzeko neguko ipar-ekialdeko haizeak jotzen zuenean. Errege hori kostata joaten baitzen orduan komunera; bere materiak burura igotzen zitzaizkion; orduan, bortizkeria guztietarako gauza zen. Griseko dukeak ez zuen aholku jakintsu hori sinetsi, eta zer gertatu zitzaion? Hura eta haren anaia hil egin zituztela. Karlos IX.a, aurreko erregea, erresumako gizonik lehorrena zen. Haren kolon eta ondesteko isurbideak hain zeuden itxita, odola, azkenean, poro guztietatik irten zen. Gauza jakina da tentu txar hori San Bartolomeko gauaren kausarik nagusienetariko bat izan zela.

Aldiz, haragiz ongi hornitutako pertsonak, belusezko erraiak, koledoko askekoak, mugimendu peristaltiko erraz eta erregularrekoak, goizero, gosaldu ondoren, tu eginda bezain erraz libratu egiten dutenak, naturak zoriontsu egindako pertsona horiek, gozoak, adeitsuak, atseginak, zuhurrak, bihozberak, langileak izaten dira. *Ez* bat haien ahoan *bai* bat lehor baten ahoan baino askoz atseginagoa izaten da.

Komunak horrenbesteko boterea du, ezen beherakoak txepeldu egiten baitu, askotan, gizona. Disenteriak adoregabetu ohi du. Lo faltak, sukar geldoak eta hamaika sabel-hustek ahuldutako gizonari ez iezaiozu esan egun-argiz ilargierdi baten kontra joateko. Horregatik ezin dut sinetsi Azincourt-eko guduan gure armada osoa disenteriak jota egon zenik, esan ohi denez, eta garaipena galtzak jaitsita lortu zuenik. Litekeena da soldadu batzuk beherakoak jota egotea, bidean mahats galduak irensteagatik, baina historialariek esan zuten armada osoa gaixorik eta ipurdia agerian borrokatu zela, eta sasimaisu frantsesei ez erakustearren, *goitik behera* txikitu zituela, Daniel jesuitaren esanetan.

Horra, bada, nola idazten den Historia.

Horrela, frantses guztiek errepikatu dute, batak bestearen atzetik, gure Eduardo III.a Handiak Calais-tik sei burges soka lepoan zutela ekarrarazi zituela urkatzeko asmoan, setioan kementsu agertu zirelako, eta haren emaztearen malkoek lortu zutela haientzako barkamena. Kontalari horiek ez dakite burgesek beren garaileen aurrean soka lepoan zutela agertzea zela garai

barbaro horietako ohitura, bikoka baten aurrean garaile horiek, denbora luzean, soka motzean lotuta izan ondoren. Egia esanda, Eduardo eskuzabalak ez zuen inolako gogorik sei gatibu horien lepoa mozteko, opariz eta ohorez betetzeko baizik. Aspertuta nago sasi-historialariek beren kronikak idazteko kontatu dituzten txorakeriez eta hain gaizki deskribatu dituzten guduez. Nahiago dut sinetsi Gedeon-ek garaipen entzutetsua lortu zuela hirurehun txanbilez. Ez dut jadanik, Jainkoari eskerrak, natura-historia baino irakurtzen, Burnet-ek, Winston-ek, Woodward-ek eta gainerakoek beren sistema madarikatuekin aspertzen ez nauten bitartean; edo Maillet horrek Irlandako itsasoak Kaukaso mendia sortu duela edota gure lurra beirazkoa dela berriro esaten ez badu; baldin eta uretako ihi horiek animalia basatitzat hartzen ez badira, ezta korala intsektutzat ere; baldin eta kalakari horiek, lotsagabeki, beren ameskeriak egiatzat ematen ez badizkidate. Kasu gehiago egiten diot nire humoreak orekan mantendu eta digestio laudagarria eta loaldi sakona ematen didan erregimen on hari. Har ezazu edari beroa hotz egiten duenean, edari hotza beroaldian; gehiegikeriarik ez, gutxiegikeriarik ez genero orotan: jan, lo egin, atsegin hartu, eta trufatu gainerakoaz.

8. ATALA

Sidrac jaunak jarduten zuen bitartean, Goudman jaunari abisua eman zioten Chesterfield kondearen etxezaina atarian zegoela, bere karrozan, eta berarekin hitz egiteko premia larria zuela. Goudman abiatu zen etxezain jaunaren aginduak entzutera, eta, karrozara igota, etxezainak honela esan zion:

– Jauna, jakingo duzu zer gertatu zitzaien Sidrac jaun eta andreari beren eztei-gauan, ezta?

– Bai, jauna; arestian kontatu dit abenturatxo hori.

– Bada, gauza bera gertatu zaie Fidler andreari eta bere senarra den apaiz jaunari. Biharamunean borrokan aritu ziren, hurrengo egunean banandu ziren, eta apaiz jaunari kendu diote bere onura. Nik Fidler maite dut, eta badakit berak zu maite zaituela; ni ez nau gorrotatzen. Ni banaketa eragin duen zoritxar horren gainetik nago: maiteminduta nago eta kementsua naiz. Utzidazu Fidler andrea eta nik eskuratuko dizut apezgoa, errentako ehun eta berrogeita hamar ginea balio duena. Hamar minutu baino ez dizut ematen pentsatzeko.

– Jauna, kontu handiz hartzeko proposamena da hori. Sidrac eta Grou filosofoekin kontsultatzera noa. Berehala naiz zurekin.

Azkar abiatu da bere bi kontseilariengana. «Ikusten dut —dio— digestioak bakarrik ez duela erabakitzen mundu honetako kontuetan, eta maitasunak, handinahikeriak eta diruak ere hartzen dutela parte». Kasua azaldu eta berehala erabakitzeko erregutu die. Biak bat datoz ehun eta berrogeita hamar gineako errentarekin parrokiako neska guztiak izango dituela, baita Fidler andrea ere.

Goudman konturatu zen erabaki jakintsua zela hura. Apezgoa eskuratu zuen, baita Fidler andrea ere, ezkutuan, eta hori emaztetzat hartzea baino askoz ere goxoagoa zen. Sidrac jaunak eman zizkion bere ofizio onak behar izan zituenean, eta Ingalaterran apaiz handi bilakatu da, mundu honetako gauzak patuak gobernatzen dituela inoiz baino konbentzituago, gainera.